Enerjiaren Iraunarazpenean diruezarketak egiteko, Egarile txiki eta artainentzako Dirulaguntza-Egitaraua finkatzeari buruzko AGINDUA. 1145

Industria eta Enerjia-Sailaren AGINDUA, 5.000 kVA.tik gorako lan-gaitasuna ez duten ustiaketetan ur-indarrezko elektra-etekina suztatzerako laguntzei buruz. 1146

ORDEN por la que se establece el programa de ayudas a pequeños y medianos consumidores para inversiones en conservación de energía. 1145

ORDEN del Departamento de Industria y Energía, sobre las ayudas para el fomento de la producción hidroeléctrica en centrales de potencia no superior a 5.000 kVA. 1146

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EUSKO LEGELBITZARRARI

622

"Euskadiren Ereserki Ofiziala"ri buruzko Apirilaren 14ko 8/1983 LEGEA.

Legebiltzarrak "Euskadiren Ereserki Ofiziala"ri buruzko Apirilaren 14ko 8/1983 Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei. Beraz, Lege honi men egitea eta men eginaraztea agintzen diet Euskadiko herritar, norbanako eta agintari guztiei.

Gasteizen, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Apirilak hamalau.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

*Zioen adierazpena*

Herriek, batzutan bere-berez eta beste batzutan kondaira-gertakarien eraginez, bere kideen batasun-sentimena eta iraun-nahia gauzatzen duten ikur, ikurrin, ereserki eta horrelako irudi-bideak beretzakotzen dituzte, bere herri-nortasunaren adierazgarri.

Euskal Herriak ez du jokabide hori arrotz izan, eta noiz nola bere nortasunaren adierazgarri eta Herri denezko izakeraren irudi izan diren ereserki berezien bidez adierazi izan du bere herri-nortasuna.

Xede eta asmo hoietxek izan dituzte, eta horretarako erabili izan dira, ikurriña bezala sentipen hoietxen ezaugarri izan diran beste irudi-bide batzuk ere.

Ikurriña eta Ereserkia ditugu berez, biak batean, Herri baten herri denezko nortasuna irudi-bidez gauzatzeko bide, eta herrien kondairan aldakor badira ere, egiten zaien aitorpena eta eginarazten zaizkien aldakuntzak, beti, ikur hoien aldakuntzen berezko iturri diren egoera eta gora-beherei erantzuten diete.

Euskal Herriaren ariman errotu izan eta horren erakuspide eta ikur izan diren ereserki berezien aldeko arrazoiak izan daitezke, beraz, eta ez litzateke bidezko Ereserki bat berri-berritan egin eta erabiltze-hutsez onartu dezan Euskal Herriari eskaintzea; aitzitik, lehen onartutako pilo ugarian herriaren onarpenaz gainera nagusitu-arazten dioten Kondairatikako zioak izan ditzana aukeratzea dugu arrezoibidezkoena eta arauzkoena.

Hoiegatik guztiegatik, kondairan alderdikeria nabarmenezko esangura izandakoak bazter utzi beharra dago, Ereserki batek Alderdi-Ereserki ez baina Herri-Ereserki izan behar bait-du, horren ezean zaila bait-litzateke politika-iritzi ezberdinetakoek beretzakotzea.

## PARLAMENTO VASCO

622

LEY 8/1983, de 14 de Abril, sobre el "Himno Oficial de Euskadi".

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento ha aprobado la Ley 8/1983, de 14 de Abril, sobre "Himno Oficial de Euskadi". Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades que la guarden y hagan guardarla.

En Vitoria-Gasteiz, a catorce de Abril de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

*Exposición de motivos*

Los pueblos, unas veces espontáneamente, otras veces por obra de los acontecimientos históricos, asumen, como expresión de su identidad, símbolos, sean estos emblemas, banderas, himnos, etc., que dan cuerpo a los sentimientos de solidaridad y a la voluntad de pervivencia de sus miembros.

El Pueblo Vasco no ha sido ajeno a este fenómeno y ha expresado su identidad a través de himnos varios que en oportunidades distintas han servido de expresión de esa identidad y símbolo de su existencia como Pueblo.

Igual carácter e intención han tenido y así han sido utilizados otros símbolos como la bandera, expresión también de los mismos sentimientos.

Es por lo tanto la bandera y el Himno en su dualidad la concreción simbólica de la identidad pública de un Pueblo, bandera e himno que si variable es en la historia de los pueblos responde siempre en su reconocimiento y en su variabilidad a circunstancias y avatares de los que fluyen los símbolos por sus modificaciones de manera natural.

Razones por tanto pueden existir en favor de los distintos himnos que habiendo calado en el espíritu del Pueblo Vasco lo han significado y simbolizado no siendo por tanto conveniente la elaboración artificial de un Himno que se ofreciera al Pueblo Vasco para su aceptación por el uso, siendo lo lógico y normal el entresacar de la rica variedad de los ya asumidos aquel que pueda añadir a su aceptación popular razones históricas que lo destaquen.

De entre todos ellos es preciso también separar aquellos que han tenido históricamente un significado netamente partidista, ya que el Himno debe representar a los Pueblos y no a los Partidos pues en caso contrario difícilmente pudiera ser asumido por las opciones políticas discrepantes.

Hala ere, askotan, Herri baten berezko sentimenaren eta Herri horrek Ereserki bat beretzakotu izanaren ondorioz, politika-alderdi edo iritzi berezitakoek bakoitzak bere hitzak ezarrita erabiltzea gertatu izan da, hori Euskal Herriak doinua gogo onez beretzakotu izanaren inolako eragozpen ez dela.

Lege-Salo hau izenpetzen duten Legebiltzar-Taldeen iritziz, Euskal Herriko Behin-behingo Jaurlaritza eratzerakoan EAJ-ren, PSOE-ren, Alderdi Errepublikarraren, Eusko Indarraren eta Alderdi Komunistaren bateango Jaurlaritzak beretzakotu, egoera hura bukatu eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutoa onartu ondoren Juan Karlos I Errege Jaunari Gernikan atospena egiteko eta Karlos Garaikoetxea Lehendakariak Adolfo Suarez Espainiako Jaurlaritzako Lehendakaria Ajuria-Enea Jauregian hartzeko erabili, eta izenpuruz Euzko Abendaren Ereserkia daraman doinuak baldintza hoiek guztiak betetzen ditu.

Euskal Herriak Estatutoa herri-itaunketaren bidez onartu zuenean ikurrin gurutzedunari alderdi-kutsu guztiak galarazi eta aitzikeriak gainditzeko ereduzko jokabidez hori beretzakotu zuenez, gaur Eusko Legebiltzarrari dagokio Elkartearen ezaugarri izan behar duen Ereserkiari buruz ereduzko jokabide horixe izatea.

*Atal bakarra*

Eusko Abendaren Ereserkia deritzan doinua izango du Euskadik bere Ereserki Ofizial, honekin bateango eraskinean ematen den dionuarekin.

*Erabaki Gehigarria*

Euskadiren Ereserkiaren jokera bat ofizialtzat aldarrikatu dezaneko eskua ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

Sin embargo muchas veces el sentimiento espontáneo del Pueblo y la asunción de un Himno por el mismo ha podido ser utilizado en distintas versiones de su letra por distintos partidos o ideologías políticas, sin que ello deba empañar la realidad de la asunción espontánea por el Pueblo Vasco de su melodía.

A juicio de los Grupos Parlamentarios que suscriben esta Proposición de Ley estas características las reúne la melodía que con la frase inicial de Euzko Abendaren Ereserkia fue asumida por el Gobierno de concentración del PNV, PSOE, Partido Republicano, ANV y PC con motivo de la constitución de un Gobierno Provisional del País Vasco, y desaparecidas aquellas circunstancias y aprobado el Estatuto de la Comunidad Autónoma del País Vasco fue el Himno entonado en la recepción de Su Majestad el Rey D. Juan Carlos I en Gernika, así como en la recepción que el Lehendakari D. Carlos Garaicoechea ofreció en el Palacio de Ajuria-Enea al Presidente del Gobierno español D. Adolfo Suárez.

Ya el Pueblo Vasco, en aprobación mediante el Referéndum pro el Estatuto, depuraba de todo carácter partidista y asumía como propia la bandera bicrucífera, dando con ello ejemplo de superación de antagonismos, y hoy es la ocasión en que, igualmente, el Parlamento Vasco puede y debe dar el mismo ejemplo en cuanto al Himno que debe representar a la Comunidad.

*Artículo único*

El Himno Oficial de Euskadi será la música denominada Eusko Abendaren Ereserkia, conforme a la melodía que se transcribe en el anexo.

*Disposición Adicional*

Se faculta al Gobierno Vasco para que por Decreto pueda declarar una versión oficial del Himno de Euskadi.

EUSKADIREN ERESERKIA

